

1.2. LEGE-ESPARRUA

⇒ **HEZKUNTZARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAK (LOE)**, 2006ko maiatzaren 3an argitaratuak, hau dio ikastetxearen heziketa-proiektuari buruz: *“Proiektu horrek ikastetxearen gizarte-ingurunearen eta kultura-ingurunearen ezaugarriak hartu beharko ditu kontuan, eta ikasleen aniztasunarekiko arreta, tutoretza eta ELKARBIZITZA-PLANA jasoko ditu. Proiektuak, gainera, diskriminaziorik ezaren eta hezkuntzan txertatzeko aukeraren printzipioak errespetatu beharko ditu funtsezko balio gisa, baita Lege honetan eta Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta helburuak ere¹.”*

Printzipiotzat hartzen ditu, besteak beste, *“gatazkei aurrea hartzeko eta gatazkak era baketsuan konpontzeko hezkuntza, eta indarkeriarik eza bizitza pertsonalaren, familiarren eta gizartearen eremu guztietan²”* eta *“eskubide-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren garapena, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena³”*; eta helburutzat hartzen ditu, besteak beste, *“tolerantzia eta askatasunean (elkarbizitzarako printzipio demokratikoen barruan), eta gatazken prebentzioan eta konponbide baketsuan hezte⁴”* eta *“bakerako, giza eskubideekiko errespeturako, elkarbizitzarako, gizarte kohesiorako, lankidetzarako eta herrien arteko elkartasunerako prestatzea, eta izaki biziekiko eta ingurumenarekiko [...] errespetua bultzatuko duten balioak eskuratzea⁵”*.

Era berean, *“ikastetxeek beren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak landuko dituzte. Arau horietan, ELKARBIZITZA-PLANAREN betetzea bermatuko dutenak sartuko dira⁶.”*

Ikasleei dagokienez, eskubidetzat eta betebehartzat hartzen dira **eskola-elkarbizitza hobetzen** eta ikastetxean ikasketa-giro egokia lortzen **parte hartzea eta laguntzea⁷**.

⇒ **EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN LEGEAK**, 1993ko otsailaren 19an onartuak, helburu hauek dituela zehazten du, besteak beste: *“Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai*

¹ V. titulua. II. KAPITULUA. Ikastetxeen autonomia. 121. artikulua. Heziketa-proiektua. 2. puntua.

² Atariko titulua. I. KAPITULUA. 1. artikulua.- Printzipioak. k)


³ Atariko titulua. I. KAPITULUA. 1. artikulua.- Printzipioak. l)

⁴ Atariko titulua. I. KAPITULUA. 2. artikulua.- Helburuak. c)

⁵ Atariko titulua. I. KAPITULUA. 2. artikulua.- Helburuak. e)

⁶ V. Titulua. II. KAPITULUA. Ikastetxeen autonomia. 124. artikulua. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak. 1. puntua.

⁷ Amaierako lehen xedapena. 8/1985 Lege Organikoaren, uztailaren 3koaren, hezkuntza jasotzeko eskubidea arautzen duenaren, aldaketa. 3.3g) eta 4e)



eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela⁸”, “**bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzaren eta elkartasun-ideiak sustatzeko heziketa⁹” eta “ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea¹⁰”.**

EUSKAL CURRICULUMA. 97/2010 DEKRETUAK, martxoaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko den urriaren 16ko 175/2007 Dekretua aldatzen duenak, aipatzen du ikasleek izan beharreko gaitasunei erreparatzen diela euskal curriculumak, eta “hezkuntzaren lau zutabeak” jasotzen ditu; horietako bat, hain zuzen, hau da: “**elkarrekin bizitzen ikastea**”. Horrela, 6. artikulua 2. puntuan ezartzen dira hezkuntza oso baterako ardatz erreferentzialak, maila pertsonalean, familiarrean, soziokulturean, akademikoan eta profesionalean, eta jakitun izanik aipatutako alderdi guztiek bizikidetzan eragiten dutela, hauek dira nabarmenenak¹¹:

- ✓ **Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziatzera jotzen ikastea. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzea, elkartasun-jarrerak erakutsiz.**
- ✓ **Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.**

⇒ **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAK**, 2005eko otsailaren 18koak, hau aipatzen du curriculumari dagokionez: “**Hezkuntza Administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazka konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzaren ereduak ikastearekin¹²”.**


⁸ I. titulua. Euskal Eskola Publikoaren Hatsapen Orokorrak eta Helburuak 3. artikulua. 2.- b)

⁹ I. titulua. Euskal Eskola Publikoaren Hatsapen Orokorrak eta Helburuak 3. artikulua. 2.- j)

¹⁰ I. titulua. Euskal Eskola Publikoaren Hatsapen Orokorrak eta Helburuak 3. artikulua. 2.- k)

¹¹ d) eta e) atalak

¹² I. KAPITULUA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HEZKUNTZA. 6. artikulua. Curriculumak.



⇒ **201/2008 DEKRETUAN, abenduaren 2koan, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI BURUZKOAN**, eskubide hauek nabarmentzen ditugu: *Hezkuntza integrala izateko eskubidea, Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea, Parte hartzeko eskubidea, Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxeetan.*


Betebeharrei dagokienez, hauek dira nabarmentzekoak: *Bizikidetzaren errazteko betebeharrak; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazka konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkartzarekin jokatu eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.*

⇒ **85/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duena**; bertan, Behatokiaren xedea, helburuak eta antolaketa arautzen dira.

Helburu hauek jasotzen ditu, besteak beste:

- a) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpekoetako eskola-bizikidetzaren ikerketa-, analisi-, balorazio- eta jarraipen-jarduerak gauzatzea.
- b) Errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako bizikidetzaren sustatzea, giza harremanen berezko alderdiztat har dadin gatazka, eta hezkuntza-prozesuaren zati izan dadin gatazka horiek sormenez eta ikuspegi etikoz eraldatzea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ikuspegi orokorra zehaztea; eta horrez gain, bizikidetzari kalte egiten dioten arazoei aurre hartzeko jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.

Dekretu hau, gaur egun, aldatzeko prozesuan dago.



⇨ ARARTEKOAREN GOMENDIOAK¹³

2006ko txostenean, “Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan” izenekoan, hau dio:

- ✓ ***Ikastetxeen parte-hartzea bultzatzea, bizikidetzaren hobekuntzarako programa eta planetan. Praktika onak hedatzea eta esku-hartze programak barreiatzea, ebaluatu, eta eraginkorrak direla baieztatu ondoren.***
- ✓ ***Ikastetxeei babesa ematea baliabideen, aholkularitzaren, irakasleen prestakuntzaren eta bizikidetza planak martxan jartzen lagun dezaketen material zehatzen bidez.***

Arartekoaren 2009ko txostenean, “Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako laguntza” izenekoan, hau jasotzen da:

Kontzientziaziorako eta bizikidetzarako hezkuntzarako programen diseinuak eta ebaluazioak, ikasle taldeei eta gizarte zibileko foro guztiei zuzenduak, biktimen euren parte-hartzea eduki behar dute. Gainera, haien lekukotza pertsonalak eta programen hartzaileekin aurrez aurre aritzeko dauden aukerak saihestezinak dira programen eraginkortasuna eta parte-hartzaileen gogobetetasuna baloratzeko. Alor honetan interesgarriak izan daitezke ikerketa-ekintza sareak, teoria eta praktika batzeko eta biktimek terrorismoaren prebentzioan duten interesen gauzatzea etengabe hobetzeko.


2010-11 IKASTURTE HASIERAKO ZIRKULARRA, HEZKUNTZA SAILBURUORDETZARENA, LEHEN HEZKUNTZARI ETA BIGARREN HEZKUNTZARI DAGOKIENA

Zirkular horretan jasota dago ikastetxe publiko eta hitzartu guztiek, bi urteko epean, beren Urteko Bizikidetza Plana egina izan behar dutela eta Bizikidetzaren Behatokia eratuta eduki behar dutela.

Gizartean gertatzen diren aldaketek aldaketa horietara egokitzeko prozesu bat egitera behartzen dute, etengabe, hezkuntza-sistema. Ezagutzak transmititzea baino askoz gehiago baita hezkuntza XXI. mendean. Ikasleak hezteko, belaunaldi berrien integrazio pertsonala errazteko gaitasunak garatu behar ditugu, baita gizartean bizi eta laneratzeko gaitasunak ere, etengabe aldatzen ari den gizarte-testuinguru batean.

Guri dagokigun esparruan, “elkarrekin bizitzen ikastea” oinarrizko gaitasun guztiekin dago lotuta (beraz, ikastetxe osoak saiatu behar du lan horretan), baina bereziki landu behar da alderdi hori “Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna” eta “Norberaren ekimenerako eta autonomiarako gaitasuna” lantzean. Izan ere, erreferentziazko jardun-

¹³ <http://www.ararteko.net/webs/iextras/conflictos-ceneduc2006/conflictos-ceneduc2006C.pdf>



eremurik ez dutenez, gaitasun horiek eremu laino batean geratzeko arriskua dute. Gaitasun horien mamia eta "elkarrekin bizitzen ikasteko" ezinbesteko jardura-alderdiak dira: norberaren herritartasuna arduraz erabiltzea, ikastetxean eta gizarte-bizitzan inplikatzeko ikastea, elkarrizketaren bidea ikastea, giza eskubideak errespetatzea, biktimekiko enpatia izatea, gatazkekiko jarrera positiboa izatea, gizarte-trebetasunak eta emozioen kontrola lantzea, ideiak proiektu bihurtu eta horiek burutzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzea eta autoestimua lantzea, eta ildo horretako gainerako alderdiak. Horrenbestez, ikuspuntu hori hartzen badugu, Elkarbizitza Planak oso tresna baliagarriak dira ikastetxeek gaitasun horiei begira dituzten hezkuntza-helburuak birpentsatu, diseinatu eta bistarazteko.

Printzipio eta helburu horiek guztiak Ikastetxearen Urteko Bizikidetzaren Plana proposatzean eta garatzean jakinaraziko zaizkigu.